



SALDROPO HEZEGUNEAN ZEHARKO IBILBIDEA

Iturria: Parketxea. Gorbeia Parke Naturaleko Interpretazio Zentroa.

Saldropoko hezegunea Barazar mendatetik hurbil dago, Atxuri haitzen magalean. Paisaiaren aldetik leku zoragarria da, izan ere.

Gorbeia mendiguneaz gain, hezegunetik gertu dagoen Urkiolako Parke Naturaleko mendirik adierazgarrienak ere ikus daitezke.

Saldropoko ordokiaren erdigunean oso ekosistema berezia dago: egungo hezegunea, balio ekologiko handikoa. Bertan, landaredi oparo eta berezia aurkituko dugu (landare intsektujaleak, esfagnoak...). Horrez gain, beste berezitasun bat ere badu: ia desagertu arte ustiatu zen zohikaztegi zaharren gainean dago.

Saldropo bisitatzeko bidezidorra gezi horiz seinalatuta dago, eta ekosistema baliotsu hori ikusteko aukera ematen du.

Atsedenekua

Aparkalekuaren ondoan, ongi hornitutako atsedeneku bat dago. Bertatik abiatuta egingo dugu hezegunea bisitatzeko txangoa, beti ere Parke Naturaleko informazio-panelak erreferentziatzat harturik.

Baso birlantua

Ibilbidearen zati horretan, parkean egiten den jardura nagusietako bat ikus daiteke: bertako landarearen berreskurapena. Kasu honetan, pagadiaren berreskurapena ikusiko dugu. Pagoa urkiarekin batera landatzen da, pago gazteek lehen urteetan hain beharrezkoa duten itzala izan dezaten.

Interpretazio-zentroa

Eraikin horretan hainbat panelen bitartez azaltzen da zohikaztegiaren sorrera, berreskurapena eta hezegune bihurtzeko prozesua. Horrez gain, bertako fauna eta landaredi berezigarriena aztertze aukera izango dugu.

Errekaldeko karobia

Garai batean karea ekoizteko kareharria sortzen zuen labearen aztarnak ikus daitezke oraindik. Baserrietan kare ugari erabiltzen zen. Badira 60 urte karobia erabiltzen ez dela, barruan hazi den zuhaitzaren adinak adierazten duen bezala. Karobian azalpen-panela dago.

Ibilbide seinalezatuta


Karobian, seinale-tantaz markatutako ibilbidea hasten da. Saldropoko landa inguratzen du eta, bidean, paisaia paregabeaz gozatzeko eta bertako zuhaitz ugariak ikusteko aukera izango dugu.

Itxitura

Inguruko artzainek abereak (zaldia eta behiak gehienbat) markatzeko eta bizkarroiak kentzeko erabiltzen duten itxitura ere ikus dezakegu.

Behatokia

Ibilbidearen amaieran, atsedenekuaren inguruan, hezegunearen ikuspegi paregabea dugu. Gainera, hezegunearen iragana, oraina eta etorkizuna aztertze aukera ere izango dugu, panel baten bitartez.



FITXA TEKNIKOA

Nola heldu: N-240 errepidetik (Bilbo-Gasteiz) 38. kilometroraino (Barazar mendatea). Barazar ostatuaren aurrean gelditu. Atsedenekuko aparkalekuan amaitzen den zementuzko pista hartu behar da (3 km). Bilbotik autobusez joateko, 3925 Bizkaibus hartu, Ubidera doana (Bizkaibus 902 22 22 65).

Ibilbidearen hasiera eta amaiera: Atsedenekuko aparkalekua.

Luzera: 1,5 km.

Zailtasuna: oso txikia, bidea erabat laua baita.

Alderdi interesgarriak: natura, ingurunea eta etnografia. Gorbeia gurutza izotzeko bidea eta Gorbeia Parke Naturaleko beste ibilbide batzuk bertan hasten dira.

AHOLKUAK

- Apiriletik uztaiera bitartean debekatuta dago hezegunean sartzea, animalien ugaltze-garaia delako. Urteko beste hilabeteetan ez da komeni sartzea, fauna asaldatzen baita.
- Ez erauzi eta ez hondatu landareak, izaki bizidunak dira eta.
- Gidaliburua eramatea oso interesgarria da, ezkutuko gauza asko ezagutzen lagunduko dizu eta.
- Erabili edukiontzia eta paperontziak.
- Erosotasun handiz ibiltzeko, erabili botak edo trekking egiteko zapatilak.